

Batasunak bat egin du Manu Agirreren aldarrikapenarekin

Indarrean dagoen hizkuntza politikak «porrot» egin duela adierazi du

Erredakzioa - BILBO

Astea bete zuen atzo gose greban Manu Agirre itsu euskaldunak. Gose greba mugagabea egiten ari da Durangoko Abarrak euskaltegia (Bizkaia). Hego Euskal Herriko administrazio publikoei eta ONCE Espainiako itsuen elkarteari braille sistemara egokitutako euskarazko liburuen katalogoa eta horiek bilduko dituen liburutegia eskatzen ari da. Joan den hogeitun urteotan ari da egiten aldarrikapen hori, baina oraindik ez du erantzun egokirik jaso. Atzo goizean, Karmele Aierbe eta Eusebio Lasa Batasuneko Mahai Nazionalako kideen bisita jaso zuen.

Elkartasuna adierazteaz gainera, bere eskakizunekin bat egiten dutela adierazi zioten Agirreri Batasuneko mahaikideek. Aierbek eta Lasak gogoratu zuten, Batasuna aspaldian ari da hizkuntza politika berria exijitzen, «egun daukagunak ez baitu balio». Hau da, indarrean dagoen hizkuntza politikak «porrot» egin duela azpimarratu zuten.

Agirre eta beste itsu euskaldunak horren adibide direla zehaztu zuten. «Manuren kasuak argiro erakusten digu euskara bera gutxiagotasun egoeran dagoela, eta gutxi egiten dela egoera hori iraultzeko. Euskaldunek eskubide guztia dute beren hizkuntzan bizitzeko, eta horretan administrazioak eskua sartu behar du, bere eskubideak berma daitezen». Euskaldun guztien hizkuntza eskubideak bermatu beharrean, administrazioak «propaganda kanpainak» egiten dituela salatu zuten.